



TXINTXARRI

Hamarkada ospatu dute

Egun osoko festa aurrera eramán du Ostadar Ipar Martxak, herritar eta eragile ugariarekin auzolanean / 9

Lokala eta jaiak, dena batera

Sasoetako jaiak aurrera eramango dituzte asteburuan. Auzo elkartearen lokala ere egunotan estreinatuko dute / 3

Udalerriko egoerari buruzko kexa bat bidali diote Arartekoari LOOPA plataformakoek / 2

Hilaren 7tik azaroaren 3ra egongo da indarrean aurtengo konstsumo bonuen kanpaina / 4

Palestina eta Libanoren aldeko manifestazioa deitu dute astelehenerako (hilaren 7a) / 7

Erketz eta Makaia dantza taldeek VI. Dantzari Eguna aurrera eramán dute, giro ederrean / 8

200 bat korrikalari eta Juan Luis de la Mata gogoan, Lasarte-Oriako II. Mendi Lasterketan / 11

Jaizkibel eta Dimako igoeren ostean, Aitor Manso gidariak Espainiako txapelketa du buruan / 12

PROGRESIBOEN HILABETEA

2x189 €

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





Okendo plazan kontzentrazioa egin eta gero manifestazioan abiatu ziren partaideak Correosen bulegora. TXINTXARRI

LOOPA plataformako kideek kexa bat bidali diote Arartekoari

Osasun publikoaren defentsan lanean ari den eragileak herritarren 1.500 sinadura bildu ditu azken hilabeteetan. Udalerriko osasun zentroan dauden "gabeziei" irtenbidea emango dien "talka plan bat" aurkeztea eskatu diote erakundeari

Txintxarri

Osasun publikoaren defentsan zorrotz eta irmo jarraitzen du Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) plataformak. Mobilizazio bat aurrera eramane zuten irailaren 30ean Okendo plazan, goizean, geroxeago gauzatu zuten ekimenari babesa emateko: Correoseko bulegora joan eta kexa bat bidali zion Arartekoari, 1.500 herritar baino gehiagoren sinadurak bildu ostean, noiz eta Osakidetzak udalerriko osasun zentroan beharrean aritu diren bost langileri kontratuak eten zizkien egun berean.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren herritarren eskubideak defendatzea da Arartekoa erakundearen zeregina. Bere atea jotzea erabaki dute LOOPAko kideek eta udalerriko osasun egoerari buruzko kexa bat aurkeztea, horri jaramon egin eta

Osakidetzako arduradunarekin bil dadin. "Gaur egungo gabeziei irtenbidea emango dien talka plan bat aurkeztea eskatu diogu", jakinarazi zuten agerraldian.

Ekintza horren deialdia aurreko egunetan egin zuten LOOPAkoek eta arrakasta izan zuten, izan ere, dozenaka herritar bertaratu ziren 11:30ean Okendo plazan egin zuten kontzentrazioa. Eragile horretako kideetako bik, Arantxa Otaegik eta Begoña Castrok, manifestu bat irakurri zuten euskaraz eta gaztelaniaz. Ondoren, Geltoki kalean Correosek duen bulegorantz abiatu ziren, manifestazioan, *Osasun publikoaren alde lehen arreta indartu* lelodun afixa eskuetan hartuta. Bertara iritsi zirenean bete-beteta zegoen gutunazal bat hartu eta tramitea egitera sartu ziren Otaegi eta Castro, Rosa Ormazabalekin

batera. Minutu gutxitara atera ziren, bidalketa egin zutela berresten zuen agiria eskuetan. Txalo artean hartu zituzte parean zituzten manifestariak.

Bost kontratu eten

Ekimen sinboliko hori aurrera eramane zuten egun berean Osakidetzak udalerriko osasun zentroko bost langileren kontratuak eten zituen, LOOPAko kideek beraiek agerraldian jakinarazi zuten. Horrekin batera, garrantzitsuak iruditzen zaizkien beste zenbait "hutsune" aipatu zituzten.

"Gabezietan larriena" iruditzen zaiena da "Osakidetzako arduradunek etorkizunerako iragartzen duten osasun publikoaren eredua". Azaldu zuten familientzako erreferentziazko pertsona ez dela medikua izango, erizaina baizik. "Zer medikuntza pre-



Dozenaka herritarrek bat egin zuten mobilizazioarekin. TXINTXARRI



Otaegi, Ormazabal eta Castro, Correosera sartu aurretik. TXINTXARRI



Kexa bidali izanaren agiria erakutsi zuen Castrok bulegotik irtetean. TXINTXARRI

bentibo mota egin daiteke horrela?". LOOPA defendatzen du ardura hori diziplinarteko talde egonkor batek (medikua, erizaina, pediatra...) izan behar duela, "taldean lan" egingo duena eta "prebentzio, babes eta sendatze lanak" egingo dituen. "Ikerketa zientifiko guztiek erakusten dutenez, hori bezalako sendagai eraginkorragorik ez dago heriotza tasak epe ertain-luzean murrizteko".

Bestalde, udalerriak hamabi kupo -mediku bakoitzari esleitutako pertsona multzoa- eta erdi ditu eta uneotan sei bete gabe daude, lau hutsik daude-

lako eta beste bietan iraupen luzeko bajak dituztelako langileek. "Lasarte-Oriako biztanleena ia erdiek ez dute medikurik", salatu zuten. Horri guztiari gehitu behar zaizkie oporraldiak eta iraupen laburreko bajak, gaur-gaurkoz ordezkatzen ez direnak. Osakidetzako arduradunek Agustin Valdivia alkateari uztailan bilera batean esan ziotenez, kupo horietako lau Lan Eskaintza Publiko (LEP) baten bidez beteko dituzte, abendurako. LOOPAkoak "eszeptikoak" dira iragarpen horrekin: "Ikusten dugunean sinetsiko dugu".



Sasoeta Sasoian elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak eta alkatea aurtengo festak iragartzeko agerraldian. TXINTXARRI

Elkartzeko toki berria estreinatuko dute, jaietan

Asteburuan lehertuko da festa Sasoetan. Auzoko festak aurrera eramango dituzte ostiraletik igandera bitarte, eta auzokide zein herritar guztientzat askotariko ekimenak iragarri ditu Sasoeta Sasoian elkarteak; txupinak eta pregoiak leherraraziko dute jai

Txintxarri

Ostiral honetan, urriak 4, hasiko dira aurtengo Sasoetako jaiak. Andatza plazan jaurtiko dute txupinazoa Sasoeta Sasoian auzo elkarteko kideek, eta horrekin batera, Saustatxo elkarte omenduko dute. Hori eta gero etorriko dira hiru egunetarako iragarri dituzten gainerako jarduerak; horiek guztiak auzoko plaza eta ka-

leetan aurrera eramango dituzte. Etenaldi baten ostean, 2016. urtean hasi ziren berriz ere aipatu auzoko jaiak antolatzen. Horri erreferentzia eginez, aipatu dute Sasoetako jaiak beti izan dutela "ospe ona".

Aurtengo ospakizuna berezia izango da, gainera; izan ere, auzo elkarteak lokala estreinatuko baitu; Lasarte-Oriako

Udalarena da espazio hori, baina horren erabilera hitzartu du Sasoeta Sasoianekin. Horrez gain, beste zenbait berrikuntza ere izango dituzte aurtengo festek; ostiral eta larunbat gauetan, *foodtruck* bat egongo da Andatza plazan.

Eguraldia lagun izatea espero dute antolatzaileek, gauzak horrela, auzotar zein herritarrei dei egin diete bertaratu

Egitaraua

Hilaren 4a, ostirala

- **18:00etan**, txupinazoa eta pregoia Andatza plazan.
- **18:10etan**, kirol jarduera Los chavales de Martija-ren eskutik, Uzturre plazan.
- **18:30etan**, Kilkerband txaranga auzoan barrena.
- **19:00etan**, rock jaialdia: Porto Bello taldea Andatza plazan.
- **23:00etan**, zezensuzkoa Andatza plazan.
- **23:30etan**, rock jaialdiaren jarraipena: The Noise Makers taldea Andatza plazan.
- **01:00etan**, rock jaialdia, azken kontzertua: Auskalo taldea Andatza plazan.

Hilaren 5a, larunbata

- **11:00etan**, heldu zein gazteentzako futbol txapelketa Jaizkibel plazan.
- **12:00etan**, LOZETen eskutik erraldoi eta buruhandiak auzoan barrena.
- **12:00etan**, Extremadura etxearen eskutik, migak Jaizkibel plazan.

- **14:30etan**, bazkari herrikoia.
- **16:00etan**, mus txapelketa Txoko tabernan.
- **16:00etan**, xake txapelketa Andatza plazan.
- **18:00etan**, pintxo potea auzo elkartean.
- **18:30etan**, helduen danborrada auzoan barrena.
- **19:00etan**, zuzeneko musika emanaldia Radio Rebelde taldearen eskutik Andatza plazan.
- **21:30etan**, DJ Niko eta DJ Parmo Andatza plazan.
- **23:00etan**, zezensuzkoa Andatza plazan.
- **23:30etan**, Remenber saioa, DJ Niko eta DJ Parmoren eskutik Andatza plazan.

Hilaren 6a, igandea

- **12:00etan**, LOZETen eskutik erraldoi eta buruhandiak auzoan barrena.
- **12:00etan**, patata tortilla lehiaketa Andatza plazan.
- **13:00etan**, haurren danborrada Andatza plazan.
- **14:00etan**, azken traka.

eta festaz "askatasunean, berdintasunean eta errespetuz" goza dezaten.

Lasarte-Oriako Udaleko Festak sailak diruz laguntzen ditu Sasoetako jaiak, kasu honetan 4.588,29 euroekin. Horrekin batera, baliabide logistikoak ere jarriko ditu auzo elkartean eskura, hala nola, ohol-tzaren muntaia, hesiak, edota argindarra, eta abar.

Kolaboratzaileei, eskerrak

Sasoetako festak aurrera eramateko udalaren dirulaguntza

ezinbestekoa da, baina, horrekin batera, auzoko establezimenduen kolaborazioa ere behar dute. Gauzak horrela, erakundeari zein laguntzaile horiei guztiei eskerrak eman dizkiete auzo elkarteko ordezkariak.

ADIN ETA GUSTU GUZTIETAKOEN GOZAMENERAKO HIRU EGUNEN EGITARAU IRAGARRI DUTE

Kronika

ERREMONTA JAIALDIA

24-10-11 17:00ETATIK 21:00AK ARTE
GALARRETA JAI-ALAI

SARRERA 14€
PINTXOA + EDARIA
*10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN

Sarrerak salgai Kronikan eta egunean bertan Galarretan



Ezker-eskuin: Dioni Avila Sozioekonomia teknikaria, Agustin Valdivia alkatea eta Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandez. TXINTXARRI

Abiatzear da kontsumo bonuen kanpaina

Lasarte-Oriako Udalak aurtengo kontsumo bonuen kanpaina aurkeztu du; tokiko kontsumoa sustatzea du xede, herriko establezimenduei laguntzea. 100.000 euroko aurrekontua du ekimen horrek, eta hilaren 7tik azaroaren 3ra egongo da martxan

Txintxarri

Lasarte-Orian erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak eskuratu ahal izango dituzte kontsumo bonuak. Horiek hilaren 7tik 31ra bitartean lortu ahal izango dituzte, baina azaroaren 3ra arte erabili ahalko. Bonu bakoitzak 10 euroko balioa du, baina, erosleak, horietatik 5 euro baino ez ditu ordainduko; beste erdia udalak hartuko du bere gain. Pertsona bakoitzak gehienez hamar bonu eskuratu ahal izango ditu, eta, horri esker, guztira 100 euro izango ditu tokiko establezimenduetan gastatzeko, soilik 50 euro ordainduta.

Bonuen erreserba honako web atariaren bidez egin beharko dute interesdunek: www.lasarteoria-bonuak.eus. Bertan, erabiltzaileek aukeratu ahal izango dute zein establezimendutan erabili nahi dituzten bonuak. 2023ko kanpainarekin alderatuta, aurtengoan plataforman ez dela ordainketarik egingo ohartarazi dute udal ordezkariak. Erreserbatutako bonuak zuzenean trukatu dituzte erabiltzaile bakoitzak aukeratutako establezimenduan, eta bezeroak 5 euro baino ez ditu ordainduko

10 euroko bonu bakoitzeko. Gainera, erosketa bakoitzean, gehienez ere 6 bonu trukatu ahal izango ditu pertsona bakoitzak, hori bai, establezimendu berean egiten diren erosketen kopuruan inolako mugarik izan gabe.

Halaber, baliabide digitaletarako sarbiderik ez duten pertsonak ere izango dute bonuak eskuratzeko aukera, Mirentxun bonuak eskuratzen laguntzeko zerbitzua jarriko baita martxan. Bertara joan nahi dutenek, astelehenetik ostiralera (lanegunetan) joan beharko dute, 09:00etatik 17:00etara. Bertan zerbitzua eskainiko dute, bonuak agortu bitartean.

Orotara, 59 establezimenduk egin dute bat aurtengo kanpainarekin. Azaroaren 3an amaituko da kanpaina, eta egun horretara arteko epea izango dute herritarrek erositako bonuak erabiltzeko. Gauzak horrela, udalak herritar guztiak animatu ditu ekimenean parte hartzera; izan ere, produktua eta zerbitzua prezio murriztuetan lortzeko aukera emateaz gain, Lasarte-Oriako ongizate ekonomikoari laguntzeko aukera ere emango diela argudiatuz.

Herria eremu tentsionatu izendatzeko eskaera

Lasarte-Oriako Udalak herria eremu tentsionatu izendatzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari; hala jakinarazi berri du Agustin Valdivia alkateak prentsaurrian. Eskaera horren erantzuna hemendik hiru bat hilabetera irits daitekeela ere azaldu du

Txintxarri

Gipuzkoan tenkatutako eremu izendatzeko eskaera egin duen hirugarren herria izan da Lasarte-Oria; berriki egin du, erreistro bidez.

Jakinarazpena egitearekin batera, egungora arteko prozesua nolakoa izan den azaldu du Agustin Valdivia alkateak. Lehenik eta behin, gogorarazi du Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza Merkatu Tenkatuko Eremu izan zitezkeen udalerrien zerrendan argitaratua izan zela Lasarte-Oria. Ostean, urtarrileko udalbatzarrean Stop Desahucios taldeak aurrera eraman du; bera arduratu da herria eremu tentsionatu izendatu dadila eskatzeko aurkeztu beharreko hiru dokumentazioak egiteaz.

Lehenengo dokumentua diagnostiko zehatz bat da, eta alkateak adierazi duenez, horrek garbi taldeak eskatu zuen, besteak beste, Lasarte-Oria eremu tentsionatu izenda zedila. Eskaera horren aurrean, udal korporazioak izandako jarreraren gainean mintzatu da gero, eta esan, talde guztiek erabateko adostasuna agertzearekin batera, gaia lantzeko bideari ekin ziotela, hala nola, kontratazio prozesu bat martxan jarritz. Lanketa hori Ikertalde aurrera eraman du; bera arduratu da herria eremu tentsionatu izendatu dadila eskatzeko aurkeztu beharreko hiru dokumentazioak egiteaz.

Lehenengo dokumentua diagnostiko zehatz bat da, eta alkateak adierazi duenez, horrek garbi

adierazten du Lasarte-Oriak udalerririk bat eremu tentsionatu izendatzeko bete beharreko baldintzak betetzen zituela. Bi betekizun behar dira izendapen hori lortzeko; lehenik eta behin kontuan hartzen da 2017 eta 2022 urteen artea alokairuen prezioa %17 baino gehiago hazi ez izana, eta Lasarte-Oriaren kasuan, %18,15eko igoera izan duela zehaztu du. Bigarrenak, berriz, herritarrek alokairuak ordaindu ahal izateko egin beharreko ahalegin ekonomikoari erreparatu dio. Horri dagokionez, azaldu du herritarren batz besteko diru sarrerak kontuan hartuta, horretara bideratu beharreko



Artxiboko irudi honetan Lasarte-Oria ikus daiteke, Buruntza menditik. TXINTXARRI

ehunekoak ezin duela %30 baino altuagoa izan, eta lasarteoriatarren kasuan, %32,2koa dela porzentaje hori.

Herriak azken urteetan bizitu duen hazkundeaz (biztanleei dagokionez) mintzatu da gero; esan du, zentzu horretan 2001. urtetik hona %14 hazi dela. Horrekin lotuta, aipatu du etxebizitza kopuruari dagokionez %12ko hazkundeaz izan duela Lasarte-Oriak, baina hala eta guztiz ere, oraindik etxebizitzaren eskasia dagoela ere berretsi du.

Hartu beharreko neurrien plana izan da Ikertalde landutako bigarren dokumentua –udalerrigisa, hainbat proposamen egin dituzte bertan–, eta, memoria izan da aurkeztu duten hirugarren agiria; horrek justifikatzen du diagnosian eta proposatutako neurrien planean bildutako informazioak argi erakusten duela Lasarte-Oria eremu tentsionatu izendatua izan behar dela.

Hiru hilabeteko epean jaso dezake udalak eskaeraren erantzuna.

"Edukirik gabeko oposizioa egiten ari dira"

Sozialistek eta jeltzaleek osatzen duten gobernu taldeak EH Bilduri erantzun dio udaletxe berriaren sorreran egindako agerraldian. Programa "egunez egun" aurrera eramaten ari direla eta oposizioko alderdiekin "biltzeko prest" daudela esan dute

Txintxarri

Agustin Valdivia alkateak hartu du hitza udal gobernu osatzen duten bi alderdietako kide guztien izenean. Nabarmendu du "oso gida argia" dutela, "herri-tarren bizitza hobetzeko 140 neurri baino gehiago dituen programa, egunez egun aurrera eramaten ari garena". Bien bitartean, EH Bilduren "erabateko proposamen falta" kritikatu du: "Gai oso garrantzitsutan ikusten ari gara hori: Lasarte-Oria eremu tentsionatu izendatzea, kale garbiketa, hiribusaren zerbitzu berria edota udala antolatzeari buruzko azterketan". Gehitu du udal gobernuak "behar adina informazio eta denbora" eman diola baina ez duela "proposamen bakar bat ere egin".

Aurreko legealdietan udal gobernuarena zen programazioaren "zati handi bat" bereganatzea ere leporatu diote koalizio subiranistari. "Orain, kritika batzuk egiten ditu ezer zehatzik ekarri



Gobernu taldeko zinegotzietako zortzi, udaletxe atarian. TXINTXARRI

beharrean, gainera, gobernu taldea erantzule ez den edo dagoeneko konponduta dauden gaietan oinarrituta".

Udaletxe barruko lanpostuetan dauden hutsuneei dagokienez, Valdiviak jakinarazi du "azkar"

saiatzen direla ordezkapenak egiten baina "oso zaila" dela, "udal guztietan" gertatzen den bezala. "Oso zaila da teknikariak ordezkatzeko hautaketa prozesuaren bermeak ezartzea; batzuetan, gainera, langilearen

baja bera baino luzeagoa eta betegaitzagoa da".

Alkateak onartu du arazoak dituztela elkarteekin hitzartutako dirulaguntzak ordaintzerakoan, baina "ia konponduta" dagoela hori: "Teknikari berriek egindako irizpideen aldaketak inork nahi ez duen atzerapena eragin du; 25 urte zeramatzan udalak beste irizpide batzuekin lanean".

Oposiziokoekin biltzeko prest

"Gobernu taldeak ez du inoiz arazorik izan oposizioko alderdiekin elkartu eta udaleko gaiak jorratzeko", zehaztu du alkateak. "Beti egongo gara prest herritarren arazoak konpontzeko proposamenak egin nahi dituztenekin biltzeko". Horren aurrean, EH Bilduren udal taldeko kideei honakoa esan die: "Ondo dakite behar den informazio guztia dutela, eta, proposamenik egin ez badute, izan dela ez dutelako beharrezkotzat jo edo ihes egiten diguten beste arrazoi batzuegatik".

Halaber, Valdiviak berretsi du sozialistek eta jeltzaleek adostutako programa "betetzen" jarraituko dutela: "Atsokarriak kirol gunea, kiroldegi berria, bide garbiketa, hiribusa, Erribera kaleko lanak, igogailuak eraikitzea, Hiri Antolamendu Zerbitzu (HAZ) berria...". Bide horretan "gustura" hartuko dituzte EH Bilduren proposamenak, "egin eta ekarri nahi badituzte, baina hori beraien erantzukizuna da".



Solaskiden izena emateko azken eguna, hilaren 25a

Txintxarri

Solaskide egitasmoan izena emateko kanpaina abiatu dute, *Eta euskaraz egiten badugu?* lelopean. Euskaraz mintzatzeko ohitura hauspotzea duen jarduera Lasarte-Oria aurrera eramango dute Lasarte-Oria Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak; bateko eta besteko arduradunek jakinarazi dute apuntatzeko azken eguna hilaren 25a izango dela, ostirala. Horretarako eskuorriak udaletxean, Ttakunen, Udal Euskaltegian eta Muntteri-AEK euskaltegian topatuko dituzte interesa dutenak.

Partaideek lauzpabost kideko taldetxoak osatuko dituzte euskaraz eroso hitz egiteko. Gainera, aukera bikaina da lagun berriak egin eta hizkuntzaren ezagutzatik erabilerara progresiboki eta seguru jauzi egiteko.

Ekin diote euskaraz hitza hartzearen erronkari

Aurrez aurreko hamar talde osatu dituzte astean lau egunez aritzeko, A1 mailatik C1 mailara arte

Txintxarri

Udal Euskaltegiko arduradun, irakasle eta ikasleek ikasturte hasiera irudikatu zuten joan den asteartean, hilak 1. Talde argazkia egin eta gero zentroaren arduradun Pili Galanek eta udaleko Euskara saileko zinegotzi Jon Antxordokik hartu zuten hitza.

Galanek azaldu zuen aurtengo kurtsoko leloa *Euskaraz hartu hitza* dela: "Hitza emango dizuegu zuek, ikasleok, hartzeko". Ondoren, Antxordokik balioan jarri zuen Udal Euskaltegian

eskolak jasotzen hasi diren ikasleek egindako hautua: "Familia, lana, euskaraz bizitzea... bakoitzak ditu bere arazoak euskaraz ikasten hasteko, eta, udalaren izenean, eskerririk asko".

Aurrez aurre edota sarean

Aurrez aurreko hamar talde osatu dituzte astean lau egunez aritzeko; astelehenetik ostegunera eta A1 mailatik C1 mailara. Horrez gain, zenbait ikasleek sarean ikasiko dute baina geroago hasiko dira, hilaren 15ean, Galanek azaldu zuenez. "Helbu-



Udal Euskaltegiko arduradun, irakasle eta ikasle talde argazkia. TXINTXARRI

rua edozein dela ere, eskarmen-tu handiko irakasle profesionalak izango dituzte bidelagun".

Bestalde, ikastea eguneroko beste ardura eta zereginekin uztargarriagoa izateko, ikasleek txandaka aritzeko aukera izan-

go dute aurrean, arestian aipatutako maila bakoitzean bi talde goizez eta beste bi arratsaldez ariko direlako. "Horrek, esan beharrik ez dago, bideragarri egiten du euskara ikastea beste eginkizun batzuekin".

Galanek jakinarazi du 2006, 2007 eta 2008an jaiotakoek 34 euro besterik ez dituztela ordaindu beharko C1 maila prestatzeagatik; gainerakoa HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen kontura izango da. Bestalde, ikasleek %85ko asistentzia izan badute ikasturtean zehar proportzio berean berreskuratuko du matrikulatzerakoan ordaindutakoa, eta, mailaren bat gaintuz gero, beste %15 eman-gio dio HABEk. Hortaz, herritarrek aukera dute euskara doan ikasteko aurrean.

Azkenik, zuzendariak adierazi du izen emate epea amaitu bada ere aukera dagoela matrikulatzeko. Zalantzen bat izanez gero zentroarekin harremanetan jartzeko eskatu du 943-36 16 21 telefonora deituta edo *euskaltegia@lasarte-oria.eus*-era idatzita.

Bizikleta izan da mugikortasunaren izarra

Autorik gabeko Mundu Egunarekin (irailak 22) bat egin du aurten ere Lasarte-Oriako Udalak eta Mugikortasunaren Astea aurrera eramanean. Artelatz enpresarekin batera prestatutako jarduera gehienak Okendo plazan eta Kale Nagusian barrena egin dituzte

Txintxarri

Irailaren 27ko goiza euritsua izan bazen ere, iragarpenei kasu egin, eta bizikleta azokarako itxitura jartzen hasi ziren eguerdian. 16:30etatik 20:30era bertan salgai jarri zituzten erregistratutako 90 patin eta bizikleta, eta lehenengo salerosketak ireki berritan egin zituzten. Hala ere, ez ziren bakarrak izan, arratsalde osoan zehar herritar ugari bertaratu baitzen pagotxaren baten bila eta aukeran zeuden piezen erdia inguruk jabe berri bat du orain.

Ordu erdi geroago abiatu zen zabalgunetik bizikleta martxa. Hiru haur eta bi begirale ibaiertzeko bidegorritik Michelinera eta handik Urbileko bidegorri-ra joan ziren, Euskotrenetik plazara itzuli aurretik. Bien bitartean, Kale Nagusian prestatutako jolasetan parte hartzen ari ziren zenbait haur. Batetik, bizikletako pedalei eraginda, scalextric batean auto lasterketak egin zituzten.

Egun bat geroago 10 urte bete zituen Ostadar Ipar Martxa taldeak ere parte hartu zuen Mugikortasun Egunean eta Okendo plazatik abiatuta ibilaldi bat egin zuten parte hartzaileek, makilak eskuetan hartuta.



Erakutsitako ibilgailuen erdiak saldu zituzten bigarren eskuko azokan. TXINTXARRI



Bi haur, uztaiekin jolasean, Kale Nagusian. TXINTXARRI

Aldarrikapenari eutsi dio berriz ere Sare Herritarrak

Azken Ostiralarekin hasi du eragileak ikasturte berria: 60 bat lagunek osatu dute Elizatzetik Okendo plazara bidea

Txintxarri

Udako etenaldiaren ondoren, Azken Ostirala dinamikari heldu zioten berrito irailaren 27an. Hilabeterako hitzordu honek atsedean hartu badu ere, Sareren eskaerek presente egoten ja-

rraiatu dute. "Jai giroan zein oporretan, 'Etxera' aldarria Euskal Herriko hamaika txokotara" zabaldu dute.

Ikasturte berria "gogotsu eta indarberrituta" hasteko asmoa dute, eta horren erakusle da hi-

laren 25ean Behin Betiko dinamika abiatzea. "Bakeari, konponbideari eta elkarbizitzari atea behin betiko irekitzeko unea dela eskatzera gatoz", eta azken hila-beteetako bidetik, presoen auziari "behin betiko aterabidea" ematea aldarrikatzera. Halaber, 2025eko urtarrilaren 11n Bilboko kaleak bete nahi dituzte, "euskal presoen auziaren konponbidea zein biolentzia ezberdinen biktimen errokonozimendua berehala eta behin betiko iritsi dadila eskatzeko".



Okendo plazan amaitu zuten mobilizazioa. TXINTXARRI



NEURE KABUZ
GORKA LASA

Udazken koloretan

Sukaldeko leihotik ikus dezaket pareko etxeko balkoia. Nahiko balkoi handia da, ez oso zabala baina bai luzexka. Alderik alde burdinazko baranda beltz bat bi muturretan paretari josia eta beste zortzi hanka lurrari lotuak, oinarri eta babes nahikoa ematen diotenak bertara hurbiltzen denari.

Bertan bizi den familia maiz ikusten dut balkoian; garbitu berri duten arropa eguzkitan lehor dadin zabaltzen, arratsaldeetan lasai eserita, zerbait irakurtzen, edo besterik gabe kaleko jardunari begira elkarrekin hizketan. Haurra ere egon ohi da lurrean eserita bere jostailuekin olgetan.

Udaberriean, lorontzi eta landare ederrez apaindu zuten balkoia. Kolore ugariz blai, bizipoza eman zion inguruari, baita lasaitasuna eta patxada ere era berean. Egun haizetsuetan hango usaina iristen zen niganaino eta gozagarria egiten zuen balkoia begiratzea. Balkoi hartako giroa bizitzaren eta bertako familiaren alaitasun eta pozaren isla zen. Beharbada, txikikeria dirudi, baina balkoi horri esker, nire auzoak alaiagoa eta koloretsuagoa zirudien.

Uda sasoiaren berriz, ez nuen mugimendurik sumatu bertan. Leihotako pertsianak beheraino jaitsiak, balkoiko loreak ureztatu gabe, eguzkiaren beroak erreaz lorontzietan bertan ihartu ziren guztiak. Bertara begiratzea gozagarria izatetik, landare ximelez beteriko kanposantu penagarria izatera bilakatu zen.

Udazkenarekin batera, aldiz, aldaketa etorri da berriz ere. Alegia, beste familia baten etorrerak balkoia kolore biziz piztu du. Ez dute, ordea, balkoia lore eta landare ederrez hornitu, ez dituzte lorontzi eta lore exotiko eta ezezagunak jarri, zapatilak baizik. Zapatila mordo bat mota eta modelo askotarikoak, kalerako, mendirako, korrikarako, sokadunak, takoidunak... Denda bateko erakusleihoan bailiran, ilaran, bakoitza bere parearen alboan, erabili ondoren kanpoan aireztatzen.

Ez du udaberriko sentsazio bera transmititzen, baina bai kutsu berritzaile, ausart eta desberdina. Aurten udazkenari beste distira bat dario, baina gure auzoak lehen bezain koloretsu eta alaia izaten jarraitzen du.



Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimeneko kideek Askatasunaren parkeko mural aurrean egin dute agerraldia. TXINTXARRI

Palestina eta Libanoren alde manifestatuko dira

Datorren astelehenean, hilak 7, urtebete beteko da 1948ko Nakba-z geroztik "Israelek palestinaren aurka jo duen eraso bortitzena hasi zenetik". Hori eta Zisjordanian zein Libanon gertatutakoa salatzeko mobilizazioa egingo dute 19:00etatik aurrera, Okendotik abiatuta

Txintxarri

Palestinako herritarrei beste elkartasun olde bat bidaliko die Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimenak (LOPHE) datorren asteko astelehenean, hilak 7. Egun horretan urtebete beteko da "palestinaren aurka Israelgo erakunde sionistak burutu duen eraso bortitzena hasi zenetik",

1948. urteko Nakba salbuetsita –arabieraz hondamena esan nahi du hitz horrek eta palestinaren exodoari egiten dio erreferentzia; 700.000 pertsonak baino gehiagok ihes egin behar izan zuten beraienak ziren lurretatik–.

Hori dela eta, aipatu eragile horrek manifestazioa antolatu du egun horretarako: 19:00etan

jarri dute hitzordua, Okendo plazan. Mobilizazioa iragartzeko ekitaldia baliatu dute lasarte-riatarrei ekintza horretan parte hartzea eskatzeko. Halaber, jakinarazi dute bi egun lehenago Bilbon eta Iruñean manifestatuko direla Palestinaren alde eta Israel egiten ari den genozidioaren aurka.

LOPHEko kideek gogoratu dute urtebete daramala Gazak setiatuta, "bonbapean bizitzen eta elikagaiak, ura edota sendagaiak ekartzeko aukerarik gabe". 40.000 pertsona baino gehiago erail ditu Israelek tarte horretan, Mendebaldeko herrialdeen laguntzarekin. "Gainera, milaka dira desagertuak, mutilatuak eta medikua- ren arta jaso gabe hiltzera kondenatu dituzten gaixo kronikoak". Umeek bizi duten egoera ere hizpide izan dute herri ekimeneko kideek: "Es- kolara joateko aukerarik ez dute, elikagaiak falta zaizkie eta israeldarren erasoan jomuga- gan daude behin eta berriz".

Zisjordania eta Libano

Israelen jopuntuan dago baita ere Zisjordania. "Bertako palestinarrek jazarpen eta apartheid jarraitua bizi dituzte", zehaztu dute LOHPEko kideek. "Eta ezin aipatu gabe utzi Libanoren aurka azken asteotan areagotu dituzten erasoak ere: egun gutxitan ehun- ka lagun erail dituzte, euren artean Hezbollah-ko buruzagi Sayyed Hassan Nasrallah".

Israelgo erakunde sionistaren erasoen ugaritzea eta hedatze- gatik "oso kezkatuta" daude: "Eskualdeko guda bat lehertze- ko arrisku handia ikusten dugu eta horrek herrialde horietako biztanleentzat ondorio izugarriak ekarriko lituzke". Hori dela eta,

LOHPEko kideek salatu dute Israel egiten ari den guztia eta hori gauzatzeko jasotzen ari den "babes ekonomiko, militar, teknologiko, mediatiko eta politiko- koa", Mendebaldeko herrialde indartsuenen eskutik.

Horregatik guztiagatik, "ezin- bestekoa eta atzeraezina" iru- ditzten zaie kaleak eta plazak hartzea, "sionisten erregimen koloniala eta apartheid salatzeko". Esan bezala, Lasarte-Oria datorren astelehenean egingo dute manifestazioa, 19:00etan, Okendo enparantzatik abiatuta.

Urtebeteko ibilbidea

Gazaren aurkako sarraskia hasi eta egun gutxitara ekin zion LOHPEk elkartasun ekintzak antolatzeari: aurreneko mani- festazioa joan den urteko urria- ren 19an egin zuten, Okendon. Orduz geroztik beste bost mobilizazio aurrera eraman dituzte eta baita Palestinako gaur egungo egoerari buruzko hitzal- di bat aurrera eraman ere, Xirimi- ri elkartearen, apirilean. Solasaldi horretara Samidoun Euskadi elkarte-ko kide Asier Herranz gonbidatu zuten afera horri buruzko gakoak parteka zitzaizkien bertaratu ziren lasarte-riatarrekin.

Datorren astelehenekoa, beraz, zazpigarren manifestazioa izango da. Egoera zein den ikusita, ez dirudi gisa horretako azken ekintza izango denik.

"Aukera paregabea" Palestinari buruz euskaraz irakurtzeko

"Palestinari buruz euskaraz irakurtzeko aukera paregabea eman digu Iñaki Alegriak, egin duen itzulpen lanari esker". Mikel Zinkunegi *Mikelon*-ek horrela ekin zion hilaren 1eko, *Ehun urteko gerra Palestinaren aurka. Kolonialismoa eta erresistentzia, 1917-2017* liburua aurkeztekoari. Rashid Khalidi historialari eta irakasleak duela lau urte argitaratu zuen jatorrizko lana, ingelesez, eta aurtengo maiatzean argitaratu du itzulpena Alegriak, Udako Euskal Unibertsitatearekin. EHU irakasle hainbat urtetan, erretiroa hartu zuenean "jubilazio plan ona" iruditu zitzaion donostiarrari interesekoak iruditzen zitzaizkion idazkiak itzultzea eta buru-belarri ekin zion zeregin horri.

Khalidiren jatorrizko lana iazko udan irakurri zuen, Irlandan zegoela oporretan. Oso interesgarria iruditu zitzaion eta euskaratzea erabaki zuen: "Nire hasierako asmoa patxadaz lan egitea zen, baina azken gertakariak tarteko eritmoa azkartu eta lehenbailehen argitaratzeko jo eta su aritu nintzen itzultzen". Liburuak sei atal ditu eta beste hainbeste mugarri historiko garatzen ditu horietan baina ez da historia liburu klasiko bat: "Bizipen pertsonalekin eta bere familiarekin osatzen du kontakizuna Khalidik eta horrek entretengarriagoa egiten du, irakurlea harrapatzen laguntzen du". Gainera, Alegriari bururatu zitzaion iazko urritik Israel



Iñaki Alegria eta Mikel Zinkunegi 'Mikelon', aurkezpen hitzaldian. TXINTXARRI

Palestinan gauzatzen ari den sarraskia ere jasotzea euskarazko bertsioan eta Khalidiri berari eskatu zion hori egitea: "Harremanetan jarri bezain laster erantzun zidan eta jatorrizko lanerako prestatzen

ari zena bidali". *Azken hitza* izena du atal horrek.

Liburuan sei mugarri garatu ditu Khalidik: 1917ko Balfour-eko akordioa, "den-dena hasi zen ueña"; 1948ko Nakba; 1967ko Sei

Eguneko Gerra; Libanoko guda; I. Intifada (buruzagi denak erbestean zeudenez, palestinar zibilengandik jaio zena); eta 1995eko Osloko Akordioaren porrota eta II. Intifada, aurrenekoa baino "biolentoagoa" izan zena.

"*Ehun urteko gerra Palestinaren aurka* irakurri bitartean zerbait geratu bazait argi, hauxe izan da: palestinaren aldarrikapen aldeko zientzako hitzarmen, bake konferentzia eta antzekoak eginda ere, ez direla bete", bota zuen Zinkunegik. "Hori dela eta, liburua herritarren frustrazioz beteta dago eta irakurtzen duzuenek ere hori sentituko duzue ziur asko".

Liburuaren mamia kontatu ostean, Alegriak eta Zinkunegik gustura entzun zituzten ekitaldian bertaratu zirenen ekarpenak.

Gozatu eta gozarazi egin dute, dantzatzen

Erketz eta Makaia dantza taldeek VI. Dantzari Eguna ospatu dute. Erdigunean barrena kalejira egin dute aurrena eta Okendo plazara joan dira gero, ordubete pasatxoko emanaldia egitera. Dozenaka lasarteoriatar bertaratu dira emanaldiaz gozatzera

Iñigo Gonzalez Sarobe

Bost urteren ostean dantzari eguna berreskuratu du Erketz Euskal Dantza Taldeak. Irailaren 28an ospatu zuen seigarren aldia, Falzesko (Nafarroa) Makaia gonbidatuta. Partaideak jantzi eta kalejiran abiatu ziren Okendo plazatik, erdigunea zeharkatzeko: Largoenea kaleko biribilgunera aurrena eta Kale Nagusian barrena gero, Tajamarreko erroton-

dara iritsi eta ezkerretara hartzeko, Hipodromo etorbidera. Okendoraino joan eta ordubete pasatxo iraun zuen emanaldi nagusiari ekin zitoten: eragile bakoitzak bere errepertorioko dantza onenak eman zituen eserleku denak bete zituzten dozenaka ikus-entzuleren aurrean.

Lanak amaituta, antolatzaileek oroigarri eder bat eman zien gonbidatuei, urte askotako lan-

kidetza eskertzeko. Ondoren, partaide guztien talde argazki bat atera zuten.

Dantzarako jantziak kalekoenagatik ordezkatu eta Semblante Andaluz elkarteak Atso Bakarren duen egoitzan bapo afaldu zuten Erketzeko eta Makaiako lagunek. Kontu kontari aritu ziren giro ederrean, eta, nola ez, afalostean mahaietatik altxa eta dantzatze-
ra animatu ziren asko.



Okendo plazan ospatu zuten VI. Dantzari Eguna. TXINTXARRI



Makaiako dantzari talde bat, emanaldi betean. TXINTXARRI



Dantzari eta musikarien lana eskertu zuten ikus-entzuleek. TXINTXARRI



Makaia eta Erketzeko kideek erdigunea zeharkatu zuten, kalejiran. TXINTXARRI

Omenaldi aste bete-betean

Biyak Bat egoitzako kideek bandera igota eman diote hasiera oraindik ere aurrera eramaten ari diren jardueraz betetako zazpi eguneko Adinekoen Omenaldi Asteari. Askotariko ekimenetan parte hartzen ari dira egunotan, hala nola, mahai jokoen txapelketetan eta musika emanaldietan. Asteartera bitarte izango dute oraindik ere beste hainbestetan aritzeko parada.



Hamar urteko inurri martxa

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ostadar Ipar Martxak gogotik ospatu zuen hamargarren urteurrena irailaren 28an, egun osoko egitarau bat aurrera eramanda: ibilaldia, hamaiketako, aurrekua, trikipoteoa, bazkaria, Earra! eskolako bertso saioa, Intza Alkain eta Bea Egizabalen bakarriketa, Porrotx eta lagun enaldia koloretsua, ipar martxalarien koreografia berriaren aurkezpena eta Denboraz Kanpo (taldekoentzat espreski konposatutako *Dragonera* abestia bi aldiz jo zuten) zein Auskalo taldeen kontzertuak. Hamar-

kada bat ospatzeko horrelako programa puska bat aurrera eraman bazuten, pentsa zer-nolakoa izan daitekeen 25 urte betetzen dituztenean, adibidez... Auzolana eta osasuna lagun, edozer izango da posible inurri urdin-beltzentzat.

Omenaldi hunkigarriak

Kolore horiek dituzten txingurrien "gidari" Rosa Ormazabalek eta "sorgin" Miren Zumetak omenaldi hunkigarriak jaso zituzten eguerdian, Erketz EDT-ko kideen aurrekuaren ostean. Lore sorta eta zapi bana eman zizkieten taldekideek eta biek

emozionatuta jaso zuten aintzatespena. Ormazabalek parean zituenei hitz batzuk esan zizkien eta Zumetak herrian famatu bilakatu diren irrintzi ozen horietako bat botu zuen.

Trikipoteoa egin zuten ondoren, festa giroan, Arkupe eta Buenetxea tabernetan tragoak hartuta. Oriarte Landaberi eraikinera bazkaltzera joan zirenerako ia prest zeuden Beltzak errugbi taldeko kideek prestatutako paella goxoak. Sabelak ongi beteta zituztela hasi zen arratsaldeko emanaldi sorta, gauera arte luzatu zena.



Goizean goiz makilak hartu eta ibilaldia egin zuten herrian barrena. TXINTXARRI



Ezker-eskuin, Miren Zumeta eta Rosa Ormazabal, hunkituta. TXINTXARRI



Ezkerreko irudian, Bea Egizabal eta Intza Alkainen bakarriketa; eskuinekoan, Porrotx eta lagun enaldia ikuskizuna. TXINTXARRI



Bazkaldu aurretik kalejiran ibili ziren ipar martxalariak. TXINTXARRI



Ostadar Ipar Martxakoek koreografia berezi bat prestatu dute, ETS taldearen 'Aukera berriak' abestiaren gainean. TXINTXARRI



Denboraz Kanpo taldea, 'Dragonera' kantua jotzen. TXINTXARRI

Nerea Eizagirre

Kolore berriekin hasi du Alex Saleta Atorrasagasti (Lasarte-Oria, 2001) errugbi jokalaria denboraldia. Uztailean Ordizia RT utzi eta VRAC Quesos Entrepinares taldearekin bat egin zuen herritarrak. Denbora gutxi izan du Lasarte-Oriako hirugarren lerrokoak taldera egokitze-ko, Espainiako Selektioarekin eta Iberians taldeekin izan da lehian azken hilabeteetan. Harekin bildu gara azken urtearen erreposoa egiteko.

2023-2024 denboraldian, Ordizia RTren eskutik, Ohorezko Mailara jauzi egin zenuen. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Niretzako pertsonalki urte oso ona izan zen. Iberians eta Espainiako Selektioaren deialdia jaso nuen lehenengoz.

Aviron Bayonnais eta Saint Jean de Luz Olympique taldeetarik etorrira, ikasteko urtea izan zen. Frantziako ligetan beste errugbi mota bat jokatzeko eta hasieran kosta egin zitzaidan moldatzea. Hilabeteak igaro eta askoz erosoago sentitu nintzen.

Taldearekin ligan emaitzen gaitik arazo gehiago izan genuen; frustrazio horrekin ibili ginen. Baina azkenean jaisteaz libratu ginen. Bizi izan genuen egoeratik atera ginen.

Egun VRAC Quesos Entrepinares taldeko jokalaria zara. Nola gauzatu zen fitxaketa?

Beraiek jarri ziren nirekin harremanetan; apiril-maiatzean jaso nuen deia.

Espainian hobekien lehiatzen duen taldea da niretzako. Titulu gehien lortu dituen ere bada. Talde ona eta profesionala da. Eta horrelako zerbait ere bilatzen nuen.

Gugan konfiantza handia dute, baliabide asko eta guk ere horri

"Errugbia ez da bakarrik zelaian egiten dena"

ALEX SALETA ATORRASAGASTI VRAC QUESOS ENTREPINARES-EKO JOKALARIA Lasarteoriatarak VRAC Quesos Entrepinares taldearekin egin du debuta Superkopa lehiaketan. Udan Ozeaniara bidaiatu eta lehiatu da Espainiako Selektioarekin



Alex Saleta, VRACekin Superkopa jokatzeko. @FOTOGRAFIA.RDIAZ

erantzun behar diogu taldean. Beraz, erantzukizuna batetik eta bestetik berdina izan behar da.

Taldearekin denboraldiaurrerik egiteko ez duzu astirik izan, ordea.

Bai, horrela da, Espainiako selektioarekin eta Iberianekin

jokatu dut udan eta oporrak ere izan dira tarteko.

Baina errugbia ez da bakarrik zelaian egiten dena. Taldearen bideoak ikusi, jokaldiak, beste jokalarien izenak ikasi... Etxetik gauzak ikasita eraman behar dituzu. Lehen entrenamenduan gauzak ikasita eramatea gustuko dut, gero gauzak automatizatzeko azkarragoa delako. Esan daiteke nire lana ongi egin dudala eta nahiko ondo joan da.

VRACekin Superkopa jokatu du denboraldiari hasiera emateko, baina ez da aurtengo helburu bakarra.

Aurten lau titulu irabazteko borrokatuko dugu (Espainiako kopa zein Superkopa, Liga eta Iberiar Kopa) eta lauen bila goaz. **Liga aipatu duzu. Hilaren 20an, zure talde ohia den Ordiziaren aurka lehiatuko zarete. Partida berezia izango da?**

Neurketa bat gehiago izango da. Taldekide ohien aurka jokatzeko berezia izango da. Baina taldea-

rentzat partida bat gehiago da eta irabaztera joango gara.

Lehen aipatu duzu, Iberians eta Espainiako selektioaren deia jaso zenuen aurreko denboraldia eta udan ere haiekin lehiatu zara. Lehenik, Ozeanian izan zinen.

Ozeaniakoa nire bizitzako bidaia izan dela esango nuke. Tonga eta Samoan errugbiari begirune handia diote eta oso talde onak dituzte. Zeelanda Berrian geratu ginen gainera eta Auckland ikusteko aukera izan genuen.

Errugbiari dagokionez, prozesu ona izan da. Aurretik kontzentrazioa egin genuen Valladoliden eta horrek asko lagundu dit. Askok ikasten da horrelako momentuetan.

Eta egiten ari garen prestakuntza guztia Munduko Txapelketa-rako sailkapena eskuratzeko da. Zehazki, bi neurketari begira; Herbehereen eta Suitzaren aurkako partidak.

Eta Superkopari dagokionez?

Ez dakit zergatik ez diren gauzak ondo atera. Denboraldiaurreko hiru aste egin genituen eta hori ere nabaritzen da, baina nire ustez Lusitanos-en aurkako norgehiagoka irabaztekoa zen. Baina azkenean, egun txar bat izan eta partida galtzen duzu.

Eta Black Lions-en gainean, zer esan... European Challenge Cup da euren helburua. Talde indartsua dute eta Superkopako neurketak denboraldiaurre modura hartzen dituzte. Ahal genuena egin genuen. **Beltzak RTko harrobiko jokalaria izanik, zer iruditzen zaizu Beltzak RT, Zarautz RT eta Bera Bera RTk osatu duten Gipuzkoa Sortzen proiektua?**

Kirol arloan eta ekonomikoki hazteko bide bakarra da. Gipuzkoak errugbiarentzat baliabide gutxi dauzka eta taldeen nahasketak da bide bakarra nire ustez.

Espainiako Superkopako lehia, ligen aurrekari

Espainiako Superkopa jokatu zuten irailaren 28an Alex Saleta herritarra kide duen VRAC Quesos Entrepinares eta Recoletos Burgos Caja Rural taldeek, Palentzian. Neurketa borrokatua luzapenean erabaki zen; 28-38 irabazi zuen Burgosek.

Lehen zatian VRAC 11-9 gailendu arren, bigarren zatian Valladolideko taldearen jokoak gorabeherak izan zituen eta Recoletos Burgosek ongi baliatu zituen 11-25 jartzeko. Azken minutuetan ahalegin handia eginez neurketa berdintzea (28-28)

lortu zuen VRACekin. Azken hoge minutuetan ezin izan zion erritmoari eutsi, ordea; Recoletos Burgosek irabazi zuen.

Saletak VRACekin debuta egin zuen. Lasarteoriatarak hamabostekoan jokatu zuen eta 66. minutura arte zelaian izan zen.

VRACeko jokalariek ez dute atsedenik izango, Espainiako Ohorezko mailako lehen partida jokatuko dute hilaren 6an; El Salvadorren aurkako derbia izango da.

Ohorezko B mailako Gipuzkoa Sortzen taldeak —Beltzak, Zarautz eta Bera Bera

taldeen batura—, aldiz, hilaren 13an Nafarroan emango dio hasiera denboraldiari, La Unicaren aurka.

Michelinen neurketa

Euskal Ligan ere hilabeteko lehen asteburuan hasiko da lehia.


Lehen eta bigarren mailan izango dira Gipuzkoa Sortzen taldeak. Bigarren mailakoak izango dira lehenak zelaira ateratzen eta Michelin kirol gunean izango dute norgehiagoka La Unicaren aurka, hilaren 5ean, 15:00etan. Ordu eta erdi geroago, lehen mailakoak Universitario

Bilbao izango du aurrez aurre Donostiako Kote Olaizola miniestadioan.

Egun berean, 16 eta 18 urtez azpiko Zarautz Beltzak RT taldeek Logroñora egingo dute bidaia eta bertan La Rioja izango dute aurkari.

Beltzak errugbi eskolako 10 eta 12 urtez azpiko gaztetxoek ere lehen jardunaldia izango dute Hondarribiako hondartzan, hilaren 6an.

14 urtez azpikoek oraindik ez dute liga hasiko. Hala ere, lagunartekoa jokatuko dute Bera Bera eta Ordiziaren aurka, hilaren 6an, Zarauzko Asti zelaian.



Ezkerrean, lasterketa hasi baino lehen, omenaldi xumea egin zitzaion Juan Luis de la Mataren familiari. Eskuinean, probako podiuma. TXINTXARRI

Oroitzapena eta lehia, II. Mendi Lasterketan

Eguraldia lagun, 200 bat korrikalarik parte hartu dute 'Lasarte-Oriako II. Mendi Lasterketa. Juanlu oroitzuz' proban. Probaren antolatzaile LOTMEK proba hasi baino lehen eta podiumean Juan Luis de la Mata taldekidea izan du gogoan

Txintxarri

Lasarte-Oriako II. Mendi Lasterketa. Juanlu oroitzuz probak herriko Okendo plazatik Buruntzarako bideak parte hartzailez zein ikusleez bete zituen irailaren

29an. Eguraldia lagun, berrehun bat korrikalarik parte hartu zuten 14 kilometrotako proban. Uztailean hildako Lasarte-Oria Trail Mendi elkartereko kide Juan Luis de la Mataren senideek guz-

tien berotasuna jaso zuten irteeran egindako ekitaldian.

Abiatzeko unea baino ordu erdi lehenagora arte jasotzea falta ziren azken dortsalak banatu zituzten Antonio Mercero

gunearen aurrealdean, eta ingurua beroketa ariketan egiten ari ziren lagunez betetzen joan zen. Luzatze ariketak, korrikaldiak, jauziak... bakoitzak bere modura prestatu zuen gorputza zetorrenarako.

Abiatu baino hamar bat minutu lehenago Juan Luis de la Mata omenaldia egin zioten Okendo plazan, parte hartzaileak, antolatzaileak eta boluntarioak bertan elkartzuta. Agurra amaitu eta atzerako kontaktari ekin zioten.

Berrehun izan ziren Buruntzara bidean joan zirenak eta 01.11.37 behar izan zuen lehenak, Patrick Laqueche Saralegik, gailurrera joan-etorria osatzeko,

Sarituak

Sailkapen orokorra

- Emakumezkoak
 1. Garazi Artola Balda (Usurbil), 01.29.59
 2. Libana Taboada Moran (Orio), 01.33.05
 3. Nerea Amilibia Arruti (Zarautz), 01.34.01
- Gizonezkoak
 1. Patrick Laqueche Saralegi (Irun), 01.11.37
 2. Josu Galvez Calero (Eskoriatza), 01.12.40
 3. Xabat Alonso Flores (Hernani), 01.13.12

Lasarte-Oriako lehen sailkatuak

- Xabier Mujika Urruzola, 01.16.31
- Nerea Arteaga Martiarena, 01.46.46

LOTMEko lehen sailkatuak

- Xabier Aizpurua Intxausti, 01.19.24
- Rocio Calero, 02.28.32

alegia, 780 metroko desnibel positiboa duen 4,5 kilometroko bidea egiteko. Minutu eta erdi geroago osatua zegoen gizonen podiuma. Lehen emakumezkoa, berriz, Garazi Artola Balda izan zen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Tolosa CD B - Ostadar SKT

Larunbata. 19:30. Usabal, Tolosan.

GORENGOEN MAILA

Ast. Mundarro FKE - Ostadar SKT

Igandea. 16:30. Zarkumendegi, Astigaragan.

ERREGIONAL I. MAILA

Texas Lasartearra CF - Axular KKE B

Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunean.

Ostadar SKT - Trintxerpe CD

Igandea. 14:50. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO J. M.

Zumaia FT - Ostadar SKT

Igandea. 15:30. Aita Mari, Zumaian.

JUBENIL GORENGOA

Ostadar SKT - Mutriku FT

Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN I. MAILA

Urnieta KE C- Texas Lasartearra CF

Larunbata. 16:00. Urrietan.

Texas Lasartearra CF B - Ostadar SKT

Igandea. 11:20. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO K. M.

Ostadar SKT - Oiartzun KE

Igandea. 13:05. Michelin kirol gunea.

KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT (neskak) - Antiguoko KE B

Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunea.

Ostadar SKT C - Orioko FT B

Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunea.

Igeltegi de Donostia B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 12:30. La Salle ik., Donostian.

Mundaiz SOC - Ostadar SKT B

Larunbata. 13:45. Martutene, Donostian.

INFANTIL HANDI

Ostadar SKT - Hernani CD

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

I. MAILA

Martutene KE Zumardi - Eguzki Arkupe

Rehabilitaciones

Igandea. 12:30. Alfta kirol., Donostian.

GAZTEEN MAILA

Eguzki Bodegas Ayesa - Irun Futsal

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOA

II. MAILA

Bosteko Irauli HH - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Paco Yoldi kir., Donostian.

III. MAILA

Eibar Saskibaloia B - Ostadar SKT

Ostirala. 20:15. Ipurua kirol., Eibarren.

J. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Ostadar SKT - Inar Optika ISB

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

J. PARTAIDETZA

Hemen Garbiketak Eskoriatza KE - Ostadar SKT

Igandea. 11:30. M. Muñoz kirol., Eskoriatzan.

K. ERRENDIMENDUA URREA

Ostadar SKT - Ordizia

Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

K. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Ostadar SKT - Panelfisa TAKE

Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kirol.

K. PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Albizu Harategia

Debasket

Larunbata. 11:00. Michelin kirol gunea.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Navarvoley B - Ostadar SKT

Igandea. 11:30. Berriozarko kirol., Nafarroan.

PILOTA

ESKUZ BINAKA, NAGUSIAK, 3. MAILA

Beloki - Intza KE

Larunbata. 18:30 (2. partida). Beloki pil., Zumarragan.

GOMAZKO PALA, NAGUSIAK, 3. MAILA

Intza KE - Aitzatarra 1

Ostirala. 19:30. Loidibarren pil.

FRONTENISA

BURUZ BURUKO TXAPELKETA

Lasarte-Oriako buruz buruzko frontenis txapelketa jokatu da.

Larunbata. Egun osoa. Mirenburuko trinketean.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, I. MAILA

Gipuzkoa Sortzen - Univ. Bilbao

Larunbata. 17:30. Kote Olaizola mini., Donostian.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Gipuzkoa Sortzen - La Unica RT

Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.

18 ETA 16 URTEZ AZPIKOA

Envases RC Rioja - Gesalaga Okelan

Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 14:00/15:30. Pradoviejo, Logroño, Erioxan.

14 URTEZ AZPIKOA, LAGUNARTEKOA

Zarautz Beltzak RT - Bera Bera RT - Ordizia RT

Igandea. 10:30. Asti, Zarautzen.

12 ETA 10 URTEZ AZPIKOA

Beltzak Errugbi eskolako gazteboek denboraldiko lehen jardunaldia jokatu dute.

Igandea. 10:30. Hondarribiko hondartzan.

AUTOMOBILISMOA

ONIL IGOERA

Aitor Manso herritarra Espainiako Mendi igoeretako ligako Onil igoeran lehiatu da.

Larunbata eta igandea. Onil, Alacant, Valentzia Erkidegoan.

ATLETISMOA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko Eider Redondok 16 urtez azpiko Federazioen arteko Espainiako txapelketan parte hartuko du Euskadiko selekzioarekin.

Larunbata. 10:05. Tuter, Nafarroan.

Manso, podiumean Euskadiko probetan

Aitor Manso herritarrak Jaizkibel zein Dimako igoeren 9. mailako garaikurra jaso du. Bizkaiko proban sailkapen orokorreko podiumera ere igo da, bigarren sailkatuta. Onil-en (Alacant) lehiatuko da hilaren 5ean eta 6an Espainiako txapelketako proban

Txintxarri

Euskadiko Mendi Igoeretako Txapelketa azken txanpan sartu da. Irailaren 22an eta 28an, Jaizkibel eta Dimako igoerak jokatu ziren eta Lasarte-Oriako Aitor Manso gidaria 9. mailako podiumaren gorenean izan zen bietan; Diman, Bizkaian, gainera sailkapen orokorreko bigarren ere izan zen.

Manso pozik dago bi hitzorduetan egindako lanarekin. Jaizkibelen aurkari gogorak izan zituela azaldu du: "10. mailako barketa handi batzuk etorri ziren iparraldetik eta bi gaunditzea lortu genuen; besteetatik gertu ibili ginen". Horrez gain, bere errekor pertsonala gaunditu zuen.

Dimako igoeran, aldiz, Joseba Iraola izan zen herritarra gaunditu zuen bakarra: "Beste maila batean dago eta ezin harengana iritsi". Hala ere, proba hurrengo hitzorduei begira balio izan ziola onartu du: "Eguraldiarengatik, batzuetan euritsu, bestee-



Manso, Jaizkibelgo podiumean. A. MANSO

tan eguzkitsu, zein gurpil jarri aukeratu behar izan genuen eta ibilgailua ere erregulatatu behar izan genuen".

Alacant eta Ibiza

Hilabete erdialdean Urrakiko probak Euskadiko txapelketa itxiko duen arren, herriko gidariak Espainiakoan jarria du gogoia eta ez da azken hitzordura joango.

"Ezingo gara Urrakin egon Espainiako txapelketako azken

proba ere data berean lehiatuko delako Ibizan (Balear Uharteak). Aurten Espainiako txapelketako proba guztiak egitea erabaki dugu. Sailkapenean gertu gaude hainbat parte hartzaile eta bigarren geratu gaitzke. Borrokan gaude. Lehia handia dago; bigarren, hirugarren eta laugarren sailkatuak gertu gaude hiruzpa lau puntura gaude", azaldu du Mansok.

Hala ere, Euskadiko 9. mailako garaikurra eskuan du; sailkapen orokorrekoa, berriz, Urrakiren menpe egongo dela onartu du, "Joseba Iraolak Urrakin parte hartuko balu, puntuak nola daudden ikusi beharko genuke".

Eta bien bitartean, hilaren 5ean eta 6an, Onilgo Nazioarteko igoera lehiatuko du Alacanten, Valentziako Erkidegoan. Gogotsu doa herritarra, "bigarren geratzen denak alde ireki dezake eta gu izatea espero dugu. Bestela Ibizako proba ere geratzen zaigu", adierazi du.



Euskadiko ordezkaritza, Valentziako Superkopan. LOKE JUDO

Ekain Luisek, brontzea Valentziako Superkopan

LOKEko judoek junior mailako Espainiako Superkopako bi proba lehiatu dituzte eta lehen postuetan izan dira

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Judo ataleko juniorrak txapelketaz txapelketa izan dira iraileko azken bi asteburuetan. Junior Mailako Espainiako Superkopako bi hitzordu lehiatu dituzte, bata Kanariar uhartean eta bestea Valentzian. Azken proba horretan Ekain Luisek domina jantzi zuen.

LOKEko kide Suhar Aristegi eta Ekain Luis Valentzian izan ziren Euskadiko selekzioarekin lehiatzen. Luisek 100 kilo baino gehiagoko mailan parte hartu zuen eta hiru borrokaren ostean, podiumeko hirugarren mailara igo zen. Aristegik ere hiru borro-

ka izan zituen –bi txapelketa nagusian eta bat bigarren aurretan– eta 81 kilo azpiko mailako bederatzigarren amaitu zuen lehia.

Aste bat lehenago, gainera, Aristegi Kanaria Handiko Las Palmasen jokatu zuen proba ere parte hartu zuen. Bigarren aurretan jokatu behar izan zuen LOKEko judokak eta bertan ere bederatzigarren amaitu zuen.

Gaztetxoak ere, lehian

Judo taldeko gazteak ere lanean daude eta hilaren 12an, infantil eta kadeteak tatamira jauzi egingo dute lehiaketa denboraldia hasteko. Hernanin izango dira, Tagoya Kopako lehen hitzorduan.

Euskal Ligako II. mailako taldeak igoera fasea du buruan

Navarvoley-ren aurka jokatu du ligako lehen neurketa Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak

Txintxarri

Ostadar Boleibola ataleko Euskal Ligako II. mailako taldeak hilaren 6an, igandearekin hasiko du denboraldia, Iruñean.

Aurten berrikuntza bat dakar lehiaketak; bi multzotan egongo da banatua. Joan etorriko liga bat jokatu dute eta sailkapenaren arabera, multzo bakoitzeko lehen lau sailkatuek igoera jokatu dute eta gainerakoek jaitsiera. Eta otsailera arte, talde urdin-beltza B multzoko lehen postuetan egoteko lehiatuko da beste zazpi aurkariarekin batera (ikus ondoko

koadroa). Lehen Navarvoley B izango da.

Ostadar taldeko entrenatzaile Asier Acuriolak azaldu duenez, aurten igoera faseko sailkapena dute buruan: "Taldea denboraldiz denboraldi garatzen eta hazten joan da eta horregatik, aurten helburua igoera fasea jokatzea izan beharko lukeela uste dugu". Urdin-beltzek lehiaketa hori jokatzeke maila dutela uste du prestatzaileak eta talde orekatua dutela. "Nahasketa bat dugu, jokalariek gazteak eta maila honetan urteak daramatzaten beste multzo



Bera Beraren aurka jokatu duen lagunartekoko irudia. TXINTXARRI

bat dugu. Oinarri sendo bat da, txapelketako erritmora ohituak baitaude". Hala ere, denboraldia luzea dela eta horretan zehar gorabehera asko egon daitezkeela jakitun da Acuriola. Horregatik, pausoz pauso joango direla onar-

tu du: "Lehenengo sailkapena lortu behar da".

Denboraldiaurreko lana

Abuztuan hasi zen lanean taldea eta astean hirutan bildu dira entrenamendu saioak egiteko. Irai-

Euskal Ligako aurkariak

2. maila

- Navarvoley B
- D'Elhuyar Logroño
- Escolapios
- Nafarroako Unibertsitatea
- Bera Bera
- Galdakao BT
- Navarra Villoslada

laren 28an, prestaketa fintzeko, maila bereko Bera Beraren aurka lehiatu eta Ostadarrek 3-1 garaitu zuen. "Proba interesgarria izan zen eta denboraldi hasierari begira, presio pixka bat kendu digu", onartu du Acuriolak.

Eguzki Areto Futboleko taldeak, kantxara

Eguzki Areto Futbola elkarteko gazteen mailako zein I. mailako taldeek hilaren 5ean eta 6an emango diote hasiera ligari; III. mailako nahiz kadete mailako taldeek astebete itxaron beharko dute denboraldiko lehen norgehiagoka jokatzeko

Txintxarri

Eguzki Areto Futbola elkarteko I. maila zein gazteen taldeak kantxara aterako dira hilabete lehen asteburuan ligako lehen jardunaldia jokatzera. Gazteen mailako taldeak etxean emango dio hasiera denboraldiari.

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak kopako kanporaketa ahaztu nahi du. Irailaren 22an, Altzatarrak 2-1 garaitu zuen eta urteko lehen saria eskuratzetik kanpo utzi zuen Josu Lopezen taldea.

Ligan, aldiz, hamahiru aurkari izango ditu hori-beltzen lehen taldeak eta joan eta etorriko liga jokatu du maiatzera arte.

Alabaina, etxetik kanpo izango du lehen saioa Eguzki Rehabilitaciones taldeak, zehazki, Altzako kiroldegian, Donostian. Hilaren 6an, Martutene KE Zumardiren aurka neurtuko ditu indarrak.

Egun bat lehenago, Maialen Chourraut kiroldegiko kantxan,



Gazteen mailako neurketa. TXINTXARRI

gazteen mailako Eguzki Bodegas Ayesa taldearen denboraldiko lehen neurketaz gozatu ahalko dute zaletuek.

Francisco Javier *Kixki* Perezek zuzentzen duen taldeak Irun Funtzal taldea izango du aurrez

aurre. Otsailera bitartean, itzuli bateko liga jokatu dute eta hamazazpi jardunaldi izango dituzte gazteek.

Gainerako taldeak

Kadete mailako taldeek ere denboraldiari hasiera emango diote, baina Eguzki Goxokis Goxuak atsedean izango du lehen asteburu horretan. Gorka Redondok zuzentzen duen taldeak astebete itxaron beharko du lehiari ekiteko; Lauburu KE Ibarra B izango du aurkari.

Kadeteek martxora arte bi itzuliko lehiaketa jokatu dute; guztira, hemezortzi jardunaldi.

III. mailako Eguzki ISU Leihoak taldeak ere hilaren 13an du fase erregularreko lehen norgehiagoka.

Aurten bi multzotan banatu da lehiaketa eta Lasarte-Oriako taldea bigarren multzoan izango da borrokan. Eibartarrak aurka hasiko du joan eta etorriko ligaxka.

Texas Lasartearrako taldeek, zorte ezberdina liga hasieran

Talde zuri-urdineko jubenil mailako B taldeak, kadeteek zein infantilek lortu dituzte denboraldiko lehen puntuak

Txintxarri

Lasarte-Oriako futbol elkarteak martxan dira. Irailaren 28an eta 29an, Texas Lasartearra CFko zein Ostadar SKTko taldeak zelaira atera ziren. Zuri-urdinen kasuan denboraldiko lehen jardunaldia jokatu zuten eta denetarik emaitzak izan zituzten.

Hilaren 29an, Kadeteen 1. mailako eta Jubenilen 1. mailako A taldearen neurketak ikusi ahal izan zituzten zaletuek etxean.

Kadete mailako taldeak eman zion hasiera egunari. Neurketa borrokatua jokatu zuten zuri-ur-



Kadeteen partidako irudia. TXINTXARRI

dinek Astigarragako Mundarro Bren aurka. Nahiz eta partida

hasi bezain pronto etxeok gola egin, aurkariak ongi baliatu zuen Texasen akats bat neurketa bana berdintzeko. Bigarren zatian bi taldeak garaipenaren bila joan ziren, baina ezin izan zuten aurkariaren zelaian golik egin.

Jubenilen 1. Mailako A taldeari dagokionez, Euskaldunaren aurka 1-4 galdu zuen.

Astigarragan, Trintxerpen eta Zizurkilen izan ziren lehiaketa Texas Lasartarra CFko gainerako taldeak; Jubenilen 1. Mailako B taldeak zein infantilen I. taldeek garaipena erdietsi zuten.

Lehenek 0-5 gainditu zuten Astigarragako Mundarro eta gatzetxoek Danena menderatu zuten, 2-5.

Emaitza hori bera izan zen Erregional mailako taldearen neurketan, baina kasu honetan Trintxerpe izan zen garailea.

Buruz buruko Trinkete txapelketa, hilaren 5ean

32 parte hartzaile arituko dira lehiaketa Mirentxuko trinketean; bakarrak jantziko du txapela

Txintxarri

Ekainean herriko gazte talde batek bikotekako frontenis txapelketa antolatu zuen Mirentxuko trinketean bizi emateko asmoarekin. Ekimenaren arrakasta ikusirik buruz buruko txapelketa egitera ausartu dira eta hitzordua hilaren 5ean, larunbatarekin izango da aipatu kirol instalazioan.

Bikotekakoaren antzera, buruz buruko lehiak harrera ederra izan du; 32 kirolarira mugatu behar izan dute parte hartzaile kopurua eta itxaron zerrenda ere egin dute.

Lehiaketa sistemari dagokionez, lehiakideak bi multzotan (gorria eta urdina) banatu dituzte eta kanporaketa sistemaren bitartez bakoitzeko kide bana iritsiko da finalera. Neurketak 22 tantora izango dira.

Egun osoan zehar giro ederra izango da trinketean. Goizeko 09:00etan hasiko da lehia; finalerdia 18:20ean (gorria) eta 18:40ean (urdina) jokatzea aurreikusten da eta finala, aldiz, 19:30ean.

Eskuz, fin

Txapelketa federatura jauzi egingez, iraileko azken asteburuan, Intza KEko Nagusien 3. mailako pilotariak txanponaren bi aldeak



Bikotekako txapelketako irudia. TXINTXARRI

bizi izan zituzten Ezker Hormako txapelketako jardunaldian.

Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilletak osatzen duten eskuz binakako bikoteak Alde Zaharra garaitu zuen, 14-22.

Lehen fasea amaitzeko bi jardunaldiren faltan, bere multzoko bigarren postuan da Intzako bikoa. Pausoz pauso doa eta dena ondo bidean bigarren faserako sailkatzea espero dute.

Zumarragan, aldiz, Gomazko pilotako Jagoba Mendizabal-Julen Urruzola bikoteak ezin izan zuten Belokiko kideen aurka, 25-11. Herriko pilotariak ez dute oraindik neurketarik irabazi txapelketan eta multzoko azken postuetan dira.

Ormazabal loradenda, Lasarte-Oria Bai! krosetako 1 dortsala

Komertzioaren mendeurrena eta herriarekin lotuta lan egiteko filosofia izan dira omenduak izateko arrazoiak

Txintxarri

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia hilaren 27an jokatu da. Urrian sartzearekin bat, atzerako kontaktak hasi da eta Ostadar SKTko arduradunek lehenengo xehetasunak ematen dituzte: Ormazabal lorendendako ordezkariak eramango dute 1 dortsala.

"Ez da ohikoa herriko negozio batek ehun urte betetzea, mimo handiz egindako lan handia dago horren atzean. Kasu honetan gainera, lana egiteko filosofia bat dago, herriarekin lotura handia duena. Horren adierazgarri da

ospakizunerako aukeratu duten 100 urte zuekin leloa. Esanahia ondo ezagutzen dugu krosaren antolaketan gabiltzanok, batez ere, lasterketa eguna gerturatzen denean loradendara irabazleentzako lore eske joaten garenean. Hor izaten dira Ramon eta Koro laguntzeko prest, beti irribarre bat ahoan dutela. Mendeurrenkoa aitzakia aproposa iruditu zaigu urte hauetan jasotakoa bueltan emateko", azaldu dute.

Era berean, gogoratu dute kros nagusiko izen ematea euren webgunean martxan dagoela.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorianagurrak.
· Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK
ARTE JASOKO DITUGU

**Jaio da!**

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zembakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 4	GIL
LARUNBATA, 5	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 6	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 7	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 8	KNIESE
ASTEAZKENA, 9	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 10	DE ORUE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK**UDALAREN TELEFONOAK**

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZTA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

ESKELA**Pilar Tolosa Amondarain**

—Goian bego—

2024ko urriaren 2an hil zen 88 urte zituela.

Besarkada handi bat familiari



TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Lasarte-Orian, 2024ko urriaren 4an.

**EGURALDIA LASARTE-ORIAN****Ostirala, 4****Larunbata, 5****Igandea, 6****Astelehena, 7****Asteartea, 8****Asteazkena, 9****Osteguna, 10****ESKUTITZA**

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

AZOKA TXIKIA**ETXEBIZITZA**

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plaza dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zembakira.

ERRENTA

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabiltza. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

GARAJEA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA**ESKARIA**

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldean, garbiketa lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozen lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

BESTELAKOAK**SALEROSKETA**

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zembakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Egoitz Epelde, Ander Hazas, Aimar Hernandez, Nora Navarro, Xuban Urdalleta eta Nikola Iraola.

BABESLEA

LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 4

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

11:00etan, Ondo ibili Okendo plazatik abiatuta.

12:00etan, hamaiketakoa Ondo ibilin parte hartu dutenentzat Mercero aretoa.

17:00etan, bideo foruma Biyak Bat egoitzan.

Herriko zenbait lekutan, 11:00etatik aurrera.



LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen pailazo lasarteoriatarrek, *Ez gara jaitsiko!* ikuskizuna erakutsiko dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholtza gainean; kantu eta dantza egitearekin batera, une eder bat igarotzeko aukera izango dute bertaratzen diren haur eta helduek. Sarrerak 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LARUNBATA 5

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

09:30ean, Ibilaldi neurtua.

Okendo plaza, 09:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Pirritx Porrotx eta Marimototsen *Ez gara jaitsiko!* ikuskizuna. Sarrerak 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 6

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea

aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

12:00etan, meza San Pedro elizan.

14:00etan, bazkaria Michelingo kirol guneko tenis pistan. Ondoren, dantzaldia Trio Galea taldearen eskutik.

Herriko zenbait lekutan, 12:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

Lagunak erreskatera haurrentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 4 eurotan.

Kultur etxea 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Romper el círculo helduentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 6 eurotan.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 7

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

10:00etan, gimnastika erakustaldia Maialen Chourraut kiroldegian.

17:30ean, musika emanaldia Biyak Bat egoitzan.

Herriko zenbait lekutan, 10:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimenak manifestazioa aurrera

eramango du, hain zuzen ere, egun horretan urtebete beteko baita Israelgo erakunde sionistak Palestinaren aurka burutu duen eraso bortitzena hasi zuenetik. Horrez gain, azken asteetan Libanoren aurka egindako erasoak ere salatuko dituztela iragarri dute. *Okendo plaza, 19:00etan.*

ASTEARTEA 8

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

10:40ean, kalejira Biyak Bat egoitzatik Brigitarren komentura.

11:00etan, meza Brigitarren komentuan.

12:00etan, opariak banatuko dizkiete urrezko ezteiak betetzen dituzten egoitzako bazkideei.

14:30ean, urrezko ezteiak betetzen dituzten bazkideen bazkaria, Herriko Etxea jatetxean.

16:00etan, dantzaldia DJ Nikoren eskutik, Biyak Bat egoitzan.

Herriko zenbait lekutan, 11:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 9

LASARTE-ORIA Opera

Opera zikloaren hasiera, Giuseppe Verdi-ren *Don Carlo* ikuskizunarekin. Sarrerak 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 10

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu taldeko kideen erakusketa; egurrekin egindako lanak erakutsiko dituzte.

Mercero aretoa, astegunetan 18:00etatik 20:30era eta asteburuetan 11:00etatik 13:00etara.

OSTIRALA 11

LASARTE-ORIA Zinema

Segundo premio filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerak, 6 eurotan.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 12

LASARTE-ORIA Musika

Abelardo Mon Amour Banda Bi taldearen kontzertua. Sarrerak, 6 eurotan.

Kultur etxea, 19:00etan.

IGANDEA 13

LASARTE-ORIA Zinema

Gru 4: mi villano favorito haurrentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 4 eurotan.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La virgen roja helduentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 6 eurotan.

Kultur etxea, 19:30ean.

LARUNBATA 19

LASARTE-ORIA Zinema

Egun osoan, herrian barrena, erraldoi topaketa egingo du LOZET elkarteak. Sei talde gonbidatuko ditu. *Herrian barrena, 09:00etan.*

Argazki lehiaketako irabazleak

Artikulu hau ilustratzen duten bi argazki ederren egileek irabazi dituzte TXINTXARRI-ren udako argazki lehiaketako sariak: epaimahaiarena, Juan Mari Apaolaza Estensororen *Sorginak etxera bueltan* irudiak; irakurleena, berriz, Isa Fernandez de Agirrerren *ETXEruntz*-ek. Aldikaren kutixia sorta bat eta Errigora produktuen saski bat etxeratuko dituzte, hurrenez hurren.

TXINTXARRI aldizkariaren lantaldearen partez, zorionak bi irabazleei eta eskerrik asko aurtengo lehiaketan parte hartu duzuen guztioi! Horrekin batera, eskerrik beroenak epaimahaiakideei: Aldikako langileak, Isaac Farre eta Haritz Salaberria.



'ETXEruntz'. ISA FERNANDEZ DE AGIRRE



'Sorginak etxera bueltan'. JUAN MARI APAOLAZA ESTENSORO

Izena eman Lasarte-Orian!

2024-2025 ikasturtea



zitek
zientzieskola

Beti zuei laguntzeko prest!

2024-2025 IKASTURTEA

Laguntza taldeak
Ikasketa teknikak

- LH - DBH - BATXILLERGOA - ZIKLOAK
- Zientziak | Letrak
- HIZKUNTZAK: Ingelesa eta Frantsesa

Mekanografia, astean behin:
Baita larunbatetan ere!!

Goikale Kalea 12, behe Lasarte-Oria.
Tel.: 943-36 31 06
info@zitek-akademia.com
www.zitek-akademia.com

A B C Haurren garapena

Psikomotrizitate saioak
(urritik ekainera)

HH2-HH3 (2-3 URTE)
asteazkenetan 17:30-18:30

HH4-HH5 (4-5 URTE)
ostegunetan 17:30-18:30

Bakarkako psikomotrizitate saioak (0-14 urte)

Rakel Montoya
Psikomotrizitate terapeuta
652723163 (whatsapp)
info@rakelmontoya.com

Diáfrea

diáfrea
MÉTODO CORPORAL INTEGRATIVO
Escuela Malén Cirerol

DIAFREO TALDEAN
ATE IREKIAK
URRIAK 9 eta 16
11:30-13:00

- LUZAKETAK
- ARNASKETAREN LANKETA
- GORPUTZ KONZIENTZIA LANDU

GELTOKI KALEA 25
LASARTE - ORIA
MAITE IRAZUSTA
636585574



Muntteri-AEK
euskaltegia



Muntteri-AEK euskaltegiak Geltoki kaleko 17. zenbakian duen bulegoan eskolak urriaren lehen hasi ziren, asteartearekin. Ohartarazi dute izena emateko epea itxita dagoela baina euskara ikasteko interesa dutenek badute la aukera horretarako, baldin eta honezkero sortuta dagoen talderen batean tokirik badago. Horrela den ala ez jakiteko euskaltegiara bertara joan daitezke interesdunak bulegoko ohiko ordutegian edota 607 62 52 33 telefono zenbakira deitu.

Tokia badute, esate baterako, A0 eta A1 ikasmailetan, oinarritzkoetan. Herrerira etorri berriak direnei edota honezkero hemen bizi baina euskara ikasteko aukera izan ez dutenei egin diete izena emateko deialdia. Aurten, gainera, dirulaguntza lerro berri bat prestatu du Eusko Jaurlaritzak ikasmaila horietarako: matrikula egiten dutenek 198 euro besterik ez dituzte ordaindu beharko, eta, horretarako baldintzak betez gero, oso-osorik jasoko dute bueltan kurtsua amaitzean.

eman izena!

aek
euskara praktikoa

A0, A1, A2, B1, B2, C1 eta C2

- AURREZ AURRE eta AUTOIKASKUNTZA bidez.
- AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK
- GURASO TALDEAK
- JUBILATUENTZAKO TALDEAK

Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behe, 20160 Lasarte-Oria
• 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus



Ola kalea, 8 behea
LASARTE-ORIA
Tel.: 943-37 31 95
653 01 11 76
www.mekaleku.com

Eskola arrakastaren arabera da etorkizuna

Gaur inoz baino gehiago, ikastetxearen arrakastan dago gure etorkizuneko ongizatea


Zergatik da garrantzitsua eskolan gauden garaia edo prozesua?

Lehen eta Bigarren Hezkuntza ezinbesteko zutabeak dira, haurren garapen pertsonala zein kolektiboa eraikitzeko oinarriak eskaintzen dituztelako.

Jakintza arloan ezinbestekoak dira LH eta DBH formakuntzak!



LH
Irakurtzea eta idaztea gizarte funtzionatzeko beharrezko tresnak dira
Irakurketa, ulermena eta ortografia lantzen ditugu. Problema ebazteko teknikak erakusten dizkiegu baita eragiketa matematikoak ere.



DBH
Matematika, Fisika, Ingelesa, Ekonomia, Historia, Filosofia... Konpetentzia espezifikokoak zabaltzen dira.

BATXILERRA-EVAU

Matematika, Fisika, Kimika, Euskara, Ingelesa eta Hizkuntza Batxilergoko laguntza eskolak eskaintzen ditugu irakasgai guztietan.



Laguntza/behar espezifikoak ere jorratzen ditugu: ikasteko zailtasunak, TDAH edo dislexia.

BAITA
INGELESA
PET, FIRST, ADVANCE...
(Aurretik A1, A2)
- Nota hobetzea eskolan